

Ikasgaiaren helburuak

- Ikasleak Terminologiaren oinarri, ezaugarri eta metodoak ezagutuko ditu.
- Testu berezituen eta terminoen ezaugarriak identifikatuko ditu eta terminoek hizkera berezitan duten zereginaz jabetuko da.
- Euskal terminologiaren egoera eta euskal terminologiaren normalizazio prozesua ezagutuko ditu.
- Terminologia lexikologiaren eremuan kokatzeko gai izango da eta terminologiaren esparruan neologismoen egitekoaz jabetuko da.
- Euskarazko hitz sorkuntzarako baliabideak ezagutuko ditu eta, horrela, testu berezitueta aurkituko dituen terminologia-arazoak bere kabuz eta egoki askatzeko baliabideak ezagutuko ditu, bai terminoak eratzeko edota baita daudenen artean egokia hautatzeko ere.
- Oro har, informazio-iturri lexikografikoen eta terminologikoen egitura modu eraginkor batean erabiltzen trebatuko da.
- Baliabide terminologiko txiki bat sortu edo egokitzeko proiektu indibiduala landuko du ikasleak, ariketa praktikoa gisa.

Eduki teoriko-praktikoak: Klase magistralen edukiak

- 1) Sarrera orokorra
 - a) Oinarrizko kontzeptuak (terminologiaren terminologia)
 - b) Terminologiaren sorrera eta historia laburra
 - c) Terminologiaren joera eta eskola nagusiak
 - d) Terminologia eta itzulpengintza
- 2) Komunikazio berezitua, testu berezituak eta hizkera berezitua
 - a) Komunikazio eta testu berezituen ezaugarri eta helburuak
 - b) Unitate terminologikoak
 - c) Izendun entitateak
- 3) Euskararen baliabide lexikogenetikoak
 - a) Neologismoak, internazionalismoak, garbizaletasun linguistikoa
 - b) Eratorpena eta hitz elkarketa
- 4) Euskarazko terminologia
 - a) Erakundeak
 - b) Baliabide terminologikoak
 - c) Ezagutza-grafo orokorrak eta terminologia
- 5) Baliabide terminologikoen egitura
 - a) Erlazio lexikoak eta erlazio semantikoak
 - b) Hiztegi berezitueta, tesauruetan, taxonomietan eta ezagutza-grafoetan erabiltzen diren egiturak

Gainontzeko saioetan, ikasleen proiektu praktikoa txikiak landuko dira, tailer formatuan.

Abiapuntu ezberdinetakoak izan daitezke ikasleen proiektuak:

- Euskarazko baliabide terminologiko baten aberasketa (erlazioak, itzulpen-ordainak, definizioak, beste baliabide batzuekiko lerrotzekak).

- Jakintza-arlo edo gai bateko euskarazko terminologiaren lanketa, hainbat iturritatik abiatuz (euskarazko datuak ez duen baliabide batetik edota han edo hemen topatutako euskarazko glosario eta hitz-zerrendetatik), euskarazko terminoen erabilerarako lekukotasunak batuz.
- Jakintza-arlo edo gai bati buruzko euskarazko testuen lanketa (terminoen anotazioa).